

Zuazo, K. (2005), Euskara Batua. Ezena eta bere eragina. Donostia: Elkar.

7. Zenbait ondorio

Guztiz deseginda eta desegituratuta ageri zaigu 1945-1964 garaiko euskara. Zuberotarrak euren euskalkari begira, lapurtarrak eta behe-nafarrak ere eurenca oinarri hartuta, Hegoaldean ere hainbat bidetan zatituta eta ahulduta...

Bizkaiko egoerak, bere osotasunean hartuta, zertxobait hobera egin zuela ematen du: asko ziren euskara giputza, giputz osotua, "euskara osotua" edo lapurtar zaharra aldarikatzen zutenak, eta bizkaitarrak eura ziren, sarritan, eragile eta bultzatzaile nagusiak. Baziren, jakina, euskara bizkaitarrari lotuta jarraitzen zutenak, eta baita batasunaren erabat aurka zeudenak ere, baina nabarmentzekoa da euren herraldetik eta euren euskalkitik irtenda, Euskal Herria eta euskara aintzakotzat hartzea. Beste kontu bat da, jakina, aukeratzeko zituzten bideak egokiak ziren ala ez esatea.


Bizkaiko Alderdi Jeltzalearen barruan ere zuzenago zebiltzan gauzak. Alderdi horretako kideak ziren, hain zuzen, zenbait batasun egitasmoren aitzindari, eta alderdiak berak ez zuen aurkako jarrerarik jendaurrean erakutsi.

Euskaltzaindia izan zen bere mailara iritsi ez zena. Ez zuen inolako irtenbiderik aurkeztu, baina ez da hori txarre-na. Auzi konpontzaile ez izateaz gainera, auziak konponbidean sartzeko zirikatzailak, bultzatzaile, bideratzaile eta antolatzaile izateko erantzukizuna ere ez zuen bere ardurapean hartu.

EUSKARA BATUA




Gabriel Arceñi



Koldo Mitxelena



Luis Villasante



Txillardegi

1960 aldera, aldakuntza larria gertatu zen Euskal Herri osoan. Bizkaiari eta Gipuzkoari ez ezik, Arabari eta Nafarroari ere gorakada handia egin zuen industriak. Ipar Euskal Herriari ere izan zen hazkundera, eta horrexek ekarri zuen Baionan Angelu-Miarritze hiribilgunea sortzea. Garai hartaraz gero, ez da emigrazio esanguratsurik izan Euskal Herrian. Immi-grazioa, berriz, gertatu da; 1980 aldera arte lehenengo, eta azken urteotan berriro.

Gizartean ere sumatu zen aldakuntza giroa. 1956az gero, batez ere, arindu egin zen zertxobait Francoren diktadura, baina, dena dela, askatasun gosez zen gerraosteko belaunaldia. Euskadi Ta Askatasuna (ETA) erakunde armatua sortu zen 1959an, zazpi euskal herrialdeen batasuna eta Euskal Herri beregaina ozen aldarrikatu zituen. Langileen arteko batasuna ere sendotu egin zen, eta oihartzun eta indar handiko grebak antolatu ziren. Sasoi hartan sortu ziren langile kooperatibak ere Arrasate inguruan, eta Euskal Herriko beste alde batzuetara zabaldu ziren ondorengo urteetan. Ipar Euskal Herrian, era berean, *Enbata* agertu zen 1963an, alde hartako lehenbiziko erakunde abertzalea. Euskal barruti administratibo berezia antolatzea zen haren eskabide nagusia, gaur ere lortu gabe jarraitzen duena: *euskal departamendua*.

Kultura arlora ere hedatu zen egoera iraultzeko gogoa. Eskullore eta margolari zenbaitek *Gaur* taldea sortu zuten, eta *Ez dok amairu*, berriz, musikari sail batek. Aldizkari berriak agertu eta zaharrak eraberritu ziren (*Jakin*, *Zeruko Arria*, *Anaitasuna*...), eta idazleak ere gizarte berriari egokitutako lanak plazaratzen hasi ziren: Jose Antonio Loidi, Jon Mirande, Gabriel Aresti, Txillardegi... Plazara atera ziren, era berean, bertsolariak eta teatro taldeak. Guztiz gertakari berriak ikusi ziren, gainera: gure historia osoan lehen aldiz, eskola euskaldunak sortu ziren, *ikastolak*, eta jende helduak euskaraz ikasteko *gau eskolak* antolatu ziren.

Ikusten denez, euskarak leku zabala bereganatu zuen kultura adierazpide horietan. Ez zen, dagoeneko, aldari politikoak egiteko eta etorkinengandik bereizteko tresna soil, aurreko garaian bezala. Pixkanaka, herri hazietako kaletan erabiltzen hasi zen, eta etorkinak bertokotzeko bitarteko gertatu zen.

Beratik bertara bizi izan nuen garai hori neure jaioterrian, Eibarren. 30.000 bizilagunetik gorako herri hazia zen; kanpoetik etorritakoak haietako asko. Ez zen euskararik erabiltzen 30 urte azpikoen artean, eta “baserritarren” mintza moldetzat hartzen zen. Inguuruko herri euskaldunetatik (Urolaldetik, Lea-Arribaitik, Durangaldetik...) etorritako familietan gertatu zen hausturarik latzena: gurasoek ozta-ozta zekiten erdaraz, eta seme-alabak ez ziren euskaraz esaldi oso bat esateko gauza. Euskara erabat galduko zela ematen zuen, eta 1970 aldera etorri zen aldakuntza: euskaldun izatearen lotsa galdu eta euskara erabiltzen hasi zen lagunarte zenbaiteran.

Hori guzteriori kontuan hartuta, bazirudien, azkenean, euskararen batasuna egiteko giro egokia iritsia zela:

- a. Euskara erabiltzen hasi zen herri hazietako gazteria.
- b. Euskaraz ikasten hasi ziren haurrak ikastolan.
- c. Euskara ikasten hasi zen jende heldua gau eskoletan.
- d. Idazleek, kazetariek, kantariek, teatrogileek, bertsolariak... ahalik eta jende multzorik zabalenera iritsi nahi zuten.
- e. Euskara gizarte hiritarrean txertatzeko, kultura esparruetan hedatzeko eta gizarte berriko hiztunen beharrian guztietara egokitzeke borondatea zegoen.

f. Euskal Herria bere osotasunean ikusten hasi zen. Ordu arteko *frantses euskaldunak* eta *españolak*, ordutik aurrera herri bakar bateko *iparraldeko* eta *hegoaldeko* bizilaguntzat hartu ziren. Une hartan agertu ziren, hain zuzen, *Iparralde* / *Hegoalde* izenak, eta izen berrien azpian ikusmolde berria ere bazen.

g. Herria zapalduta, itota, desagertze zorian ikusita, herri horren alde jokatzeko prest azaldu zen gazteria sail zabalak. Eta hizkuntza zen –ez arraza– haren nortasunaren ezagarietako bat; ezaugarri nagusia, batzuen iritzian.

1. Aitzindariak: Aresti eta Txillardegi

Txillardegiren arabera (1994: 125-173), tinko eta irmo eusten zion Euskaltzaindiak bere jokabideari gerraostekeo garaian: egonean zegoen, lozorro goxo eta sakonean. Euskararen batasuna ez zen harendako inolako lehenetasuna: er-

daraz irakurtzen ziren txostenak, eta erdaraz egiten ziren barzarretako hitz-aspertu gehienak.

1963an, bertatik bertara bizi izandako gertakari barek agortu omen zuen Txillardegiren eramana. Jean Haritxelharrek euskara behe-nafarrean egin zuen Euskaltzaindiko sarreara hizaldia, René Lafonek euskara zuberotarrean eman erantzuna, eta euskara giputzean mintzatu zen Jose Maria Lojendio euskaltzainburua. Jakina, Haritxelhar, Lafon eta Lojendio ez ziren horren errudun bakarrak, Euskaltzaindi osoaren utzikeria baizik (Txillardegi 1994: 160, 163). Handik lasterrera, gutun zehatza eta zorrotza egin zion Euskaltzaindiari (orain in Txillardegi 2004: 47-52), batasun bidean zerbait egiteko eskatuaz edo, bestela, erakunde horretan bere dimisioa aurkeztuaz. Euskaltzaindiak ez zuen ez batean ez bestean amore eman: ez batasunari heldu zion, ez Txillardegiren dimisioa onartu zuen.

Ez zen Txillardegi hitz hutsetan gelditu eta ekintzetan ere ederki erakutsi zuen bere nahia. Euskara batuaren eredu zehaztea zen lehenengo urratsa, hau da, zein euskalkitan oinarritu erabakitzea, eta zuzena eta zentzuzkoa izan zen Txillardegiren ikuspegia. Alde batetik, *erdiguneko euskalkiak* zirenen gogoko, euskaldun guztiendako ulertterazena zirelako. Bestalde, berriz, *euskara bizia* ikusi zuen ezinbesteko. Baina hizkera estandarrek batez ere idazteko direnez gero, *literatura tradizioa* aintzakotzat hartzea jo zuen baitezpadako, hizkera mintzatuak txokokeriak eta azken orduko berrikuntzak saihestu ahal izateko. 1958an, Euskaltzaindiaren babesan Bilbon egindako Euskalzaileen Biltzarrean plazaratu zuen bere iritzia (Txillardegi 1959: 159):

Oiarzun, Sara eta Elizondoko euskera artzen dut erredutzat. (...) Duvoisinin eta Mendibururen artan mugituko naiz, nik uste. Axular aukeratuko nuke gogoz, bere euskera bezelakorik ezpaitago inundiak ere, baña, zaharregia dala-ta, Duvoisin artu dut bere ordeaz, eta Mendiburu oiarzuarra.

Garaitsu hartan idatzi zuen Gabriel Arestik *Maldan behera* poema, eta egitura berriko hizkera erabili zuen bertan, geroago *euskara batua* izango zenaren oso antzekoa. Haritzekoa, Bilbo erdalduneko familia erdalduncan sortu, euskaraz ikasi, eta halako senez jokatu izana: euskara batua sortu baino bederati urte lehenago idatzi zuen euskara batuan. Halaxe aitortu zuen Mitxelena (1978: 472-473), Euskaltzaindiak Arantzazun 1968an aurkeztutako batasun egitasmoaren egileak:

Arantzazun esana da, eta ehunen bar aldiz errepikatua gero, ez zela inor deus asmatzen ari; euskal literaturan indarrez ongi hornitua ageri zen joera bati, ordurako han gure aurrean geneukan joera bati, ematen zirzaiola amore. (...) Hau ez da hitz eta bitsa, hau frogá daiteke, eta erraz gainera. Besterik pentsatzen duenak irakur beza 1959ko Arestiren *Maldan behera* poema luza (...). Hor dago alde-aldean Arantzazuko batua osorik, puntu eta komatxo, baita Arantzazuz gerozkoa ere, aditz eta guzti. (...) Eta hori, ikus dezakezuenenez, Arantzazuko bilera baino bederati urtez lehenagoko kontua duzue.

Argi ageri zen, beraz, batasunerako iparra: erdiguneko euskara, Lapurdiko literatura tradizioarekin uzartuta.

Helburura iristeko bidea zehaztea zen hurrengo urratsa, eta 1964an egin zen. Urtebete lehenago, *Euskal Idazkari-tza* sortu zen Baionan, eta “Hizkuntza Saia” osatu zen haren babesan. Euskararen batasunari eman zirzaion lehentasuna, eta berehala ekin zioten lanari.

Txillardegiren arabera (1968: 69, 1994: 168), Jesus Maria Bilbao, Jean-Louis Davant, Roger Iriart, Eneko Irigarai, Telesforo Monzon, Jesus Solaua eta Txillardegi bera ziren taldean. Herrialde gehienetako ordezkariak zeuden, beraz, eta, betiere Txillardegiren esanetan, gizarteko zenbait eragileren babesa biltzen ahalegindu ziren: EAJ, ETA, Enbata eta Eliza. Lau esparruotako ordezkariak azaltzen dira zerrendan.

Zortzi hilaireko lanaldiaren ondoren, batzar irekirako deia egin zuten 1964ko agorrilean. Euskal Herri osoko idazle eta irakasle jendea bildu zen bertara eta, hartutako erabakiek, zazpi orrialdeko txostena ekarri zuten plazara (in *Jakin* (1965), 18. zb., 20-28 eta orain in Txillardegi 2004: 55-64). Hiru aral zituena txostenak: ortografia, deklinabidea eta aditza. Hona hemen erabakirik esanguratsuenak.

*Ortografia*n, *x* eta *tx* idaztea erabaki zen, eta baita *j* ere, bere ahoskera desberdinak gorabehera. Tilleta baztertu eta letra bikoitzak erabiltzea hobetsi zen: *rr*, *dd*, *ll* eta *tt*. Bustidura dela eta, ez zen erabaki garbirik hartu, baina nahiz *baño* tankerakoak idaztea utzi zen aukeran, baina sekula ere ez *i* bokal gabeko *baño* tankerakoak. Bestalde, *b* eta *p*-ren aurrean *n* idaztea erabaki zen, *m*-ren ordez.

Ontzat jo zen *h*-a erabiltzea, baina pixkanaka sartzeko aholkua aipatu zen. Hasierako epean, bokal berdinaren artean (*nahastu*, *mih*) eta adiera banako hitzak bereizteko (*ohola* / *ola*, *haur* / *ahur*) idaztea erabaki zen. Bigarren eperako utzi zen hitz hasieran (*hartu*, *handi*) eta bokal desberdinen artean (*ahizpa*) erabiltzea. Aldiz, baztertu egin ziren *ph*, *th* eta *kh* (*ephe*, *urthe*, *bekhatu*) eta kontsonante ondorengoak (*alhaba*, *senhar*, *erhi*). Txostenaren eranskinean, *h* zuten hi-

tzen zerrenda aurkeztu zen: 23 hitz ziren *h*-a bokal artean zutenak, eta 59 hasieran zutenak. Jakina, Hegoaldeko euskaldunen lagungarri osatu zen zerrenda hori.

Beste arau hauek ere eman ziren ortografia sailean: *ba*-balduintzazkoa aditzari lotuta idaztea (*badaki*, *baleki*), baina *ba* baiezkoa eta *ez* berezita idaztea (*ba dakit*, *ez dakit*). Aldiz, *bait*-aurrizkia aditzari lotuta idaztea erabaki zen, baina aukera bi emanaz: *baitakit* / *baidakit*, *baitzekien* / *baizkie-en*, *baikiñan* / *baigiñan*.

Deklinabidean, egia esan, ez da sekula burruhauste larririk izan, eta lehendik zetozen joerei jarraitu zitzaion Baionan. Baita, dena dela, nabarmendu beharreko zenbait erabaki:

- a. NORk pluralean *-k* erabiltzea onartu zen: *mendiak dure* (*ez mendiak*).
- b. NORi pluralean aukeran utzi ziren *-ei* eta *-eri*: *mendiei nahiz mendieri*.
- c. ZEREZ kasuan *-z* erabiltzea erabaki zen: *mendiz*, *mendiaz* eta, pluralean, *mendiez* nahiz *mendietaz*, biak aukeran. Aldiz, baztertu egin zen *-tzaz*, eta baita *-taz* ere pluralean ez bestecetan.
- d. Destinatioboan *-entzat* (*mendiarentzat*) eta prolatiboan *-tzat* (*menditzat*) onartu ziren; ez *-endako* (*mendiarendako*) eta *-tako* (*menditako*).
- e. NONDIK kasuko mugagabeen eta pluralean *-(e)ratik* aukeratu zen (*menditrik*, *mendietrik*), ez *-(e)tarik*.
- f. NORA kasuan, berriz, *-ra* hobetsi zen (*mendirra*), ez *Iparraldeko -rat*.
- g. Bizidunetan *-a(ren)gan*, *-a(ren)gana* eta *-a(ren)gandik* onartu ziren, hau da, *gizona(ren)gan*, *gizona(ren)gana*,

gizona(ren)gandik. Alde batera utzi ziren, beraz, *gizonaren* baitan tankerakoak, eta baita *-ganat* eta *-ganik* aldaerak ere.

Adirzean, azkenik, *izan-en* eta **edun-en* indikatiboko adizkiak baizik ez ziren aurkeztu: *naiz* gisakoak (eta ez *naz / niz*) eta *dut* sortakoak (eta ez *det / dot*) onartu ziren, baita *izan-en* pluralean, Gipuzkoa aldeko *gera*, *zera*, *zerate* aukeratu ziren.

Laburbilduz, oso onuragarria izan zen Baionako batzordearen jarduna: eztabaida antzuetan nahastu eta galdu beharrean, arau argiak eta zehatzak eman zituzten; labur eta xume adierazita, gainera. Eta ezinbestekoa zen hori, jendeak eroso ikasi eta batasun arrastoan berehala sar zedin. Zailantzarik gabe, Txillardegirena zen horren arzean zegoen eskua eta burua.

Baionakoaren ondoren, 1968an etorri zen bigarren urratsa. Baretik, *Idazlecn Alkartea* sortu zen eta, bestetik, Gerediaga Elkarteak Ermuan bildu zituen idazle horiek urte bereko ekainean. Hiru hilabete geroago zen Euskaltzaindia batasunari ekitekotan eta, horren aurrean, idazlecn arteko elkartasuna sendotzea eta Euskaltzaindiari babesa erakustea zen batzarraren asmoa.

Gai jakin batzuen inguruko txostenak ere irakurri ziren (in *Jakin* (1968), 31-32. zb., 1-74). Gehienbat, Baionan erabakitakoa betetzera onartu zen eta, aldi berean, han aipatu gabeko bat aurkeztu zen: partizipioa eta aditz oina bereiztea, hau da, *ikus du* eta *sartu da*, baina *ikus daiteke*, *sar hadi*.

2. Euskaltzaindia batasungintzan: Koldo Mitxelenaren txostena (1968)

1968an betetzekoa zen Euskaltzaindia sortu zeneko mende erdia, eta ospakizun zenbait egitea erabaki zuen jaiotzaren oroigarri. Gabriel Arestik orduan, Euskaltzaindia sortzeko arrazoia eta Euskal Herriarekin zeukan zorra ekarri ziotuen gogora. Honela kontatu zuen, ohikoa zuen moduan (Aresti 1968: 3):

Urtarileko batzarra Bilbaon ospatu zen. Nire denbora apurretik ordu pare bat ohosturik, bertara azaldu nintzen. Eta gure Akademiaren urrezko eztaiak ospatzeko asmoak aipatu zirenean, jaiak eta jaiak ekarri ziren ahotara. Orduan hasaratu nintzen: “Gureak guztiak dira jaiegunak. Eta asategunak noizko dira? Lanean haritzeko orduak ez al du oraindik gure atea jo?”

Eta literatur-euskara bat egon dadin, aipatu nuen premia. Katalanen ereduak ekarri nuen aiputara, Pompeu Fabraren lan miragarria. Hizkuntza batek ezin dukeela bizitza normal bat ereman, erregela eta lege zehatz hestu batzuei ez badago loturik. Eta Euskaltzaindiak niri jaramon egitea beste erremediorik ez du eduki.

Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenaren esku utzi zuen batasunaren ardura, eta ezin egokiagoa zen erabakia. Azkueren hiztegia osatzen eta zuzentzen ziharduen aspaldi luzean, euskararen fonetika historikoaz egina zuen bere dokto-retza tesi bikaina, aditua zen onomastikan, Euskal Herri osoko hainbat izkribu zahar argitaratuak eta aztertuak zituen, Erronkari eta Zaraitzuko euskalkiak bertatik bertara bilduak eta landuak zituen, eta gainerakoez ere –Bizkaikoaz eta Gipuzkoakoaz, gehienbat– bazuen ezagutza zabala, eus-

kararen eta Euskal Herriaren bilakaera ikertuak zituena, euskarak beste hizkuntza batzuekin izan ditzakeen ahaidetasunak aztertuak zituena, euskal literatura gertuak ezagutzera zuen, mundu zabaleko hizkuntzalaritzan egindako aurrerapenak berri bazuen, eta berak ere bere ekarriak eginak zituen... Hitz bitan esateko, premia ordu hartan behar zen laguna suertatu zen Euskal Herrian. Halaxe ikusi zuen Euskaltzaindiak, eta haren gain utzi zuen erantzukizuna.

1968ko urrian aurkeztu eta eztabaidatu zen Mitxelena osatutako txostena Arantzazuko santutegian (in *Euskera* 13 (1968), 137-265). Batzar irekia izan zen eta, gehienbat, idazle eta irakasle jendea bildu zen bertara.

Txillardegiak nahi zuen bezala, erdiguneko euskara aipatu zen batasunaren oinarritarako. Hauexek Villasanteren hitzak (175. or.):

Guk erdialdeko dialektuetara jotzea erabaki dugu. Euskarak baditu bi dialektu pixka bat zoko egiten direnak: bizkaitarra mutur batean eta zuberotarra bestean, biak nahiko bereziak. Erdian, berriz, bada multzo bat Nafarroak, Gipuzkoak eta Lapurdik osatua. Erdialdea diogunean, multzo huntara esan nahi dugu.

Eta arrazoi hauek aipatu zituen erabakiren euskarri (176. or.):

Eta erdialde hori hautatu badu, hori da, alde batetik, hor dagoelako gure herriaren bilhotza, eta bestetik, gure literaturaren kondairan halako abiadura edo joera bat nabari delako. (...) Bertsolariak, sermolariak, hizlariak, liburuagillak eta habar ditugu lekuko. Beraz, lehendik datorren abiadura huni eutsi eta jarraiki: hori da bidia.

Bost atal zituen Mitxelena txostena: a) ortografia, b) euskal hitz eta aldaera lexiko zaharrak, c) hitz berrak, d) morfologia, eta e) sintaxia.

*Ortografia*n Baionako erabakiak hartu zituen oinarri, baina badira, dena dela, Mitxelena berak egindako ohar eta ñabardurak. Jakina, *h*-a gertatu zen eztabaida gai nagusi, eta horren gaineko erabakia plazaratu zuen Euskaltzaindiak (250. or.):

H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdibide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea. Honck ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saiok ez direla ongi ikusiak izango.

Euskal hitz zaharrak direla eta, ez zen bat bera ere baztertu: *ahaide / askazi, etorri / jin, irten / jalgi...* denak onartu zirena, eta zentzu bereko ohar hauxe egin zuen Mitxelena (212. or.):

Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik. Nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkitua baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatua daudenak. Aberastasunari begira dago beti, garbitasunari baino areago.

Aldaera lexikoi dagokienez, berriz, oinarri hauek jarri zituen Mitxelena:

a. Ahal dela, aldaera zaharrenen alde jokatzea: *barkatu* (ez *parkatu*), *bekatu* (ez *pekatu*), *arima* (ez *anima*)... baina zaharkituta gelditutaokak berpizten jardun gabe, hala ere: *azeri* berria hobea, *azeari* zaharragoa baino.

b. Erdiguneko aldaerak hobeste, bazterretakoak gabe: *berri* (ez *barr*), *bihur* (ez *bühir*, *bior*)... Baina bazterretakoak bat datozenen eta zaharrak diren, horiek hartzea, eta ez erdigunekoak: *burdina* (ez *burnia*), *artrain* (ez *arrai*)...

Hitz berriak euskaratik bertatik sortzea nahiz kanpotik hartzea apatu zuen, baina kanpokoak idazteko orduan, ortografa etimologikoa gabe, euskararen ohiko jokabidera egokitzea: *psikologia* (ez *psykhologia*). Hona haren hitzak (215. or.):

Lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. Ximplerasunera joko nuke arcago, edo erdibidera behintzat, *y*, *kh*, *th* (*psykhologia*, etc.) eta gisa horretako idazkerak baztertuz.

Deklinabidean ere Baionako erabakiei jarraitu zien, baina, Mitxelena-ren iritzian, NONDIK kasuko -*etatik* aldaerekin batera, -*etarik* ere onartu beharrekoa zen, eta bizidunetan, eta berean, *baitan*, *baitara* eta *baitatik* kontuan hartze-koak ziren.

Aditza geroko utzi zen, eta sintaxiaz ez zen ezer erabakitzeko premia laririk ikusi. Dena dela, estuegi ez jokatzea eta geure inguruko gainerako hizkuntzak aintzakotzat hartzea izan zen Mitxelena-ren aholkua.

Baturako aukeraturako aldaerak eta ortografia ikus eta ikas zitezten, azkenik, hitz zerrenda zabala argitaratu zen (252-265. or). Horixe izan zen, hain zuzen, euskara batua-ren lehen hiztegia.

Euskaltzaindiak Mitxelena-ren txostenari bere babesa eman orduko, egundoko zalaparta sortu zen. Hego Euskal Herria astindu zuen gehienbat, eta zahar eta gazteen arteko haustura gertatu zen. Berez txikia zen auzia izan zen aitzakia:

h letra. Ordu arte aukeran zegoen *h*-a erabiltzea, eta erabiltzearen aldekoa zen gazteria gehiena. Ipar Euskal Herria batorasunera ekartzea zen horretarako arrazoi. Adinekoek, ostera, lehengoari eusten zioten eta, ulertzekoa denez, neketsu gertatzen zitzairen *h*-z beterako izkitibuetara begiak ohitzea.

Nemesio Etxanizek Santi Onaindiari egindako guttunear daukagu hausturaren lekukotasuna. Apaiza zen Etxaniz, eta fraide karmeldarra Onaindia, *Oleri* alizkariaren arduraduna, baina gutunaren doinuan ez da elizgizon buri dagokien bake girorik nabari. Hona Etxanizen hitzak (in Onaindia 1974: 262-263):

Oraintxe dezu aukera polita aldizkaria biziartzeko. *H*-ren kontuak gai asko emango dio jendeari ezpai bizia sortzeko. (...) Aiek beren *Jakin* aldizkarian eskuak jarein dituzte nai dutena esateko. Guk *h*-ren kontra gogor jokatzeko, or daukagu *Oleri*. (...) Guziok *Jakin*-en eronkari erantzun bear dlogu, ta Euskaltzaindiaren aolku orri ez entzun egin. (...) Ia, ba, atzartzen dituzun erdi-lotan dauden *h*-ren kontrako guziak. Gazteok beren asmoak aurretera eramau nai dituzte, azkencan urtero letra bat sartu nai digute. Poliki-poliki, *ç* *dh* ta azkencan *v* sartu naiko digute. Orregatik garrantzi aundia du oiei bidea istreak. (...) Agur, ba, ta presta azkar gure eraso gazte zazpikien aurka.

Gazteen saillekoa zen Luis Haranburu Altuna, eta esangurara bixia eta berezia eman zion *h*-a erabiltzeari. Egoera gaiztortu eta bazterrak nahastu baizik ez zituen egin haren aldarrak (in *Euskal Literatura* 72. Donostia: Lur, 1972, 10-11):

Euskararen egokitzea bere hasiapenetan dago oraino, baina pausorik garrantzitsuen a emanik dugu. Eren dugu historiakoki eta eredu bezala jaso eta jasan dugun euskara. Jaso eta jasan diot, zeren eta guiri sortean bezala egokitu zaikun eus-

kara hau, gizaldi askoren kutsu ideologikoz heritua atlegatu zaiku.

Esan daiteke, hizkuntza errealtatearen lehen racionalizazio maila dela. Eta noski, racionalizazio maila hori ideologiko ere bada. Agian hargatik da ideologiko literatura oro. Gure literaturaren kondaira euskal burgesiaren ideologia atzerakoiaren historia da. Guk jaso dugun euskara, burges ideologia baten sostengua da. (...)

Leizarragarena aipatzeke, bi eten edo iraultza nagusi obratu dira gure literaturan. Bata Sabino Aranak eta bere akolitoak osatu zuten gizaldi honen lehen urteetan; bestea 1960-64 urteetan izan da.

Lehenengo etenak (sabinista) formaz, craz aldatu nahi izan zuen euskara. Gaiaz, orde, lehenean jarraitu zuen; eten honen pertsonak eta frogatzaileak seinu berekoak zirenez, hots, burges-klerikal. (...) Urte hauetan, 1960-64, gertatu den mugimenduan, berriz, forma eta gaiaren aldeetik izan da. Hizkuntzarekiko eten formalista horren sinboloa *h* dugu. Iraultza guztiak du bere sinbologia eta, historikoki berderen, *h* agertzen zaiku sinbolo plastiko bezala.

Antonio Maria Labaienena (1972: 28-29) erantzunean ikusten da aldarriak sortu zuen haserre. Gainera, eta okerrera dena, hizkuntzaren esparritutik zeharo kanpo kokatu zen eztabaida, eta gizartearen egitura, politika nahiz erlijioa, denetarik nahastu zen:

Por las propias declaraciones de sus autores sabemos que tomaron la *hache* por símbolo de sus propósitos que son los de destruir la obra cultural realizada en los cincuenta años anteriores. Y principalmente, en lo que tienen de sentido tradicional, de adhesión a la fe religiosa de nuestros mayores; minando sus modos de vida, sus costumbres y su organización familiar.

Es el odio al cristianismo, no la conciencia de un justo socialismo que les impulsa en su obsesión teórica-revolucionaria, ¡IRAUTZA! a la negación de los valores del tesoro moral y espiritual de nuestro pueblo.

No hay sino leer los libros y folletos que van publicando en sus colecciones; los artículos de sus periódicos y revistas, plagados casi todos de obscenidades y frascología marxista. Eso sí bajo capa de *batasuna* y profusión de *haches*.

Luis Villasante fraide frantziskotarra eta Euskaltzaindikoa burua zenez, berriz, honela mintzatu zen (30. or.):

El P. Villasante no osa enemistarse con los que comulgan en el culto idolátrico de la *hache*. Tal vez me replicara que San Francisco vivió también entre los mahometanos y los infieles. Si lo hace por espíritu de proselitismo y atracción hacia el buen camino, admiro su valentía y su heroísmo. Yo, cobarde pecador, no llevo a tanto, pero rezaré para que tenga éxito en su empresa²⁰.

Josu Arenaza bizkaitarrak ere gogor jardun zuen *h*-aren eta euskara batuaren aurkako erasoan. Liburu bat argitaratu zuen gai horretaz 1974an, eta adierazgarria da liburuaren azala bera: *h*-aren itxurapean zeru goienetik datorren exististak desgaiten du euskal baserria, euskal aintaren sinboloa. Liburuaren barruan, berriz, hauxe esan zuen (Arenaza 1974: 84-85):

La *h* es un símbolo político aunque lo nieguen muy sesudos señores, aunque vayan investidos de seráficos hábitos.

²⁰ Egari zor, esan dezadan Labaienek beste liburu bat plazaratu zuela 1984an, eta oso bestela azaldu zuen hatxearen auzia—eta batasunarena, oro har—bigarren saio horretan.



Josu Arcañazaren liburuaren azala, 1974koa.

Tan político como pueda ser la hoz y el martillo, la cruz gamada o las dos a la vez.

Beste hau ere idatzi zuen (93-94. or.):

Hemos mantenido la tesis de que la ortografía achista no es más que un intento de politizar el euskera, rompiendo los moldes tradicionales, como una rama más de lo que se intenta romper: la familia, el derecho a la educación cristiana, nuestras costumbres peculiares, nuestra personalidad, etc., como medio para conseguir una juventud sin moral, sin sentimientos, ni conciencia de pertenecer a un pueblo con unas costumbres discutibles pero indudablemente mejores de las que nos proponen a juzgar por las muestras que vemos. Una juventud neutra es el primer paso para el trabajo de los profesionales del marxismo. (...) No hay duda de que todos los encenigos (abiertos o camuflados) de la Iglesia usan la *h* cuya utilización son propugnadores y forzadores.

Bixente Laticegi izan zen, Duniñi Oñatibarekin batera, euskara batuaren aurkako beste liburu biren egilea (1982, 1983). ETA erakunde egin zuten *h*-a zabaltzearen erantzule. Hona iritzi bitxi horren arrazoia (Laticegi & Oñatibia 1982: 18):

Agian, irakurle, ikurrintzat *h*-a zergaitik artu zuten jakin naiteniko duzu. Ba... *h*-ari elenez *ETA* esaten zaiolako. *ETA* arrak baitziran, ain zuzen, 'el batua' ren sortzaille aiek danaki!

Bitxikeriekin ari garenez, baina bitxikeriak ere egoera ulertzeko lagungarri direnez, Latxagaren beste aipu bat dakart hona. Pedro Ignazio Barrutia aramaitoarrak XVIII. mendean idatzitako teatro lana argitaratu zuen, eta gertakari ortografiko "harri-garri" batez oharatu zen, mende bi lehe-

nago idatzitako lan horretan. Honela kontatu zuen Latxagak (1983: 100) urekabean egindako aurkikuntza:

Hizkia bein bakarrik azaltzen da: *Herodes Herregue* (10. or.). Beste bi aldiz ikusten dugu *erregue*, *h-rik* gabe. *Hizkiakin*, berriz, bakarrik Herodes Erregari lotua dagonian. Aldaketa oiek, ikusten ez dan idazlearen buru-muin̄etako mailan, zerbait esan nai dute. Erodos erregearen izena erderaz *h* batekin jantzia datorkigu, ta *erregue* izena eranstun dioncan, *h* izkiakin laguntza egiteko ta indarraren ezaugarri bezala, ipintzen dio. Idazlearen muñaren maillean, *h* izkia, indarkeri ta gorrotoaren ezaugarri dugu.

Gaiztoruta eta bere oneik aterata zegoen egoera, eta eztabaida bideratu nahian, agiri bat plazaratu zuen Luis Villasante euskaltzainburuak. Hauxe zioen, besteak beste, bertan (Villasante 1973: 239):

Beste gauza bat erruz eta maila orotan (baiza erlijio eta pastoral mailatan ere) zabalzen dute Euskaltzaindiaren batasun bideari atxiki nahi dizkiotenak: bide hori atocena dela edo erlijio gabena.

Asmazio honck ez du ez buru eta ez buztanik, ez itxuririk, ez egiarik, ez egia antzik ere. Alde hortatik gezurtatzea ere ez luke merezi. Baina behin da berriz ta azpikeriaz hori sinets arazi nahi dutela ikusirik, egiazen alde aurpegia ateratzea behartua nago. Neure indar eta ahal guztiaz salatu nahi dut, bada, hori egia ez dela. Arazo honck hizkuntzaz bakar-bakarrik du zer ikusia, eta deus ez erlijioaz, fedez edo politikaz. Bakoitzak eskubide osoa du bere pentsakera edo ikusmolde berezia izateko euskera idatzaren batasun kontuan. Baina Jainkoaren amorioarret! ez daitezela zeruko gauzak eta lurtekoak berriro nahas. (...) Ipar eta hegaldeko euskaldunen artean idazkera bateratzeko, *h* letra hartzea gomendatu zuen Euskaltzaindiak. Ez da, beraz, le-

tra hori ezeren bandera; gehienez ere izan daiteke batasunaren bandera, eta inork ez du eskubiderik, ez alde batetik ez bestetik, hori ezeren banderatzat hartzeko.

Gaur egungo ikuspegitik begiratura, hauxe da auzi horretaz daukadan iritzia. Alde batetik, *h*-a sartzea benetako zailtasuna zen Hegoaldeko jendearendako. Horretan ez da zalantzarik. Hots hori arrotza da Hegoaldeko euskaran eta, beraz, ikasi beharra zegoen zeinua non jarri. Eta egin dezagun kontu, gainera, *h*-a daramaten hitzak ez direla bat edo bi; ugari dira.

Idazteko ez ezik, irakurtzeko ere benetako zailtasuna zen. Letra hori ikustera ohitu gabe zeudenendako neketsua zen begiak horretara egitea. Alderantziz gertatzen zaigu orain: *h*-rik gabeko izkribuak irakurtzea egiten zaigu arrotza.

Ipar Euskal Herritik begiratura, berriz, *h*-a euren egunero jarduncan ahoskatzen duten hotsa da, ohitura daude izkribuetan irakurtzera, eta onartezina zen haiendako batasunaren izenean zeinu hori baztertzea.

Hegoaldeko edo Iparraldeko ikuspegitik gabe, euskararen osotasuna aintzakotzat hartuta, *h*-aren alde zegoen arrazoa. Alde batetik, hots hori euskararena da, antzina Euskal Herri osokoa izandakoa, eta gero Hegoaldean galdutakoa. Bigarren arrazoi bat ere bazen: *h*-a jarri edo ez, oso itxura desberdina dauka hitzak. Hona hemen zenbait adibide: *zahar / zar, mche / me, zuhur / zur, nahiz / naiz, aho / ago / abo / ao, lehor / legor / leor / lior*... Ezbarrik gabe, *h*-a jarrita, zuzenago agertzen da hitzaren jatorritiko itxura. Azken batean, txistukariek in gertatzen den arazo bera zegoen mahai gainean: mendebal osoan eta Gipuzkoako zenbait hizkeratan ez dira bereizten *z* eta *ç*, *tz* eta *ts*, baina batasuna-

ren izenean, eta hizkera idatzian, arrazoizkoa eta onerakoa da bereiztea.

Dena dela, aitzakia ere bazen *h*-aren ausia: euskararen batasuna bera zen benetako gakoa. Batasuna ezinbestekoa zen batzuenetako, gehienbat euskara lan tresna zutenentako: idazle, kazetari eta, batez ere, irakasle eta testugileentako. Aldiz, euskara ahozko jardunetan, eta herri edo eskualde barruko hartu-emanetan erabiltzen zutenentako, ez zen lehenetasuna eta, nolabait esatearren, garestiegia iruditzen zitzaien batasunera iristeko ordaina.

Jakina, hizkuntzaren esparrua gairatzen zuten gertakariak ere baziren jokoan. Euskal Herriaren historiako aro biren arteko mugarian azaldu zen euskara batuaren ausia, nekazaritza egituratik industria egiturara aldatu zen garaian, aldi luze bateko bizimodua goitik behera irauli zen sasoiari, eta gizartearen puri-puritan zeuden borrorak eta gatazkek hizkuntzaren zelaira ere zabaldu ziren.

3. Luis Villasanteren agintaldia (1970-1989)

Euskara batua plazaratu berritan, eta eztabaidak hain gordinak eta garrantzak ziren garaian, aldakuntza esanguratsua gertatu zen Euskaltzaindi barruan: Luis Villasante aukeratu zuten euskaltzainburu 1970ean. Haren ezagari-ek oso egoki egiten zuten eginkizun horretarako une jakin hartan:

a. Gizon apala zen, hitz handiak gabe, ekintza zehatzak gogoko zituen eta, bere iritziei eutsiaz, besteenak entzuten eta aintzakitatzen hartzen zekiena.

b. Gizon argia zen, helburuak ondo zehazten eta helburuetara iristeko bideak zuzen zedarritzen zekiena. Garbi ikusi zuen euskara batua aratzea zela une hartako zeregina eta, gauzak ganoraz eta lehenbailehen egiteko, batzordeak arrotatu zituen. Goitik behera irauli zuen Euskaltzaindiaren egitura: lozorroan eta beti herriaren bizkarrean zegoen erakundea, ibiltzen jarri eta herriaren buruan ipintzea lortu zuen.

c. Gizon jantzia zen. Hizkuntzalaritzan ikasia izan ez arren, euskararen gaineko jakituna zabal zuen. Euskara zaharra eta berria, Bizkaikoa bezala Lapurdikoa, Gipuzkoakoa eta gainerako alderdietakoa ezagutzen zituen. Euskararen barasunaz, berriz, aspalditik zegoen arduratuta. Gai horretaz egin zuen Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia 1952an eta, sasoi hartan lapurrera klasikoaren alde zegoen arren, txosten mamitsua eta gaurkotasan betekoa osatu zuen (Villasante 1952).

Euskara batua egin ondoren ere, gai horren inguruko hiru liburu plazaratu zituen: *Hacia la lengua literaria común* (1970), *La declinación del vasco literario común* (1972) eta *La H en la ortografía vasca* (1980). Hirurak zeuden gaztelaniar, baina liburu argiak eta irakurterrazak ziren eta, garai hartako giro nahasian, oinarri eta helduleku egoki gertatu ziren.

Nire iritzian, eta garaiko lekuko izan nintzen heinean, Txillardegui, Aresti eta Mitxelenaekin batera, Luis Villasante izan zen euskara batuaren laugarren ardatza. Nor bere arloan eta bere mailan, lau lagun horiek izan ziren euskara batuaren burua eta bihotza.

Euskaltzaindiari berari dagokionez, berriz, premia ordu gorri hartan lortu zuen bere historia guztian ezagutu dio-

gun gailurra. Zalantzarik gabe, Mitxelena eta Villasante izan ziren horren eragile eta, eurekin batera, baita unearen esan-guraz jabetu ziren beste zenbait euskaltzain ere.

3.1. *Euskara batuaren arraingintza: 1968-1978 epea*

Villasantek ezarritako egiturari esker, urrats bizkorrak egin ziren 1970-80 hamarkadan. Ortografia alorreko erabakiak etorri ziren lehenengo (in *Euskera* 16 (1971): 150-159). Hona hemen esanguratsuenak:

- a. Galdera eta harridura zeinuak esaldiaren amaieran baizik ez jartzea erabaki zen.
- b. Apostrofoa letraren bar kentzen denean baizik ez jartzea onartu zen.
- c. Marratxo erabiltzea murriztu eta arautu zen.
- d. Hitz elkartuak eta partikula zenbait (*arazi, gabe, eta, ad...*) idazteko modua zehaztu zen.

Gogora dezagun, Sabino Aranaren aldakuntzak zirela eta, anabasa handia zegoela apostrofoa eta marratxo erabiltzeko orduan, eta bazen gauzak bideratzeko beharra. Dena dela, hitz elkartuen ortografia eta marratxo erabiltzeko arauak luzerako kontua ziren.

Hurrengo urtean beste erabaki hauek hartu ziren, biak esangura handikoak euren txikian (in *Euskera* 17 (1972): 168-173):

- a. *ez* partikula aditzarengandik bereiz idaztea: *ez du, ez nuen*.
- b. *ba* beti aditzari lotuta idaztea.

Baina aditz laguntzailea zen benetako korapiloa, ordu arte sekula ukitu gabea. Aukera egin beharra zegoen: *cuskalki* jakin batekoa hartu eta gainerakoak baztertu. Ez zen beste irtenbiderik. Konponbidea laster etorri zen, 1973an. Hona hemen aditz laguntzaile batuaeren ezaugarriarik esanguratsuenak (ikus *Euskera* 18 (1973): 5-74):

- a. *izan*-en sailcan *naiz* (*ez naz / niz*) eta *naiteke-zaitzez-gaitzezen* (*ez nitake-zitez-gitzezen*) sortakoak aukeratu ziren. Baita *gara* tankerakoak ere (*ez gera / gira*).
- b. NOR-NORI sailcan *zait* gisakoak onartu ziren (*ez zaut / zat / jat*). Plurala osatzeko, *bertiz, -zki* aukeratu zen (*zaitzkit, ez zaitzit / jataz*), eta *zit*-dunak iragana egiteko: *zitzaidan* (*ez zaitan / zautan / jatan*).
- c. NOR-NORK sailcan *nauzu* (*ez nazu / nozu / nuzu*) eta *dut* (*ez det / dot*) sortakoak aukeratu ziren.
- d. NOR-NORI-NORK saila zen denetan zailena. Arazo fonetikoak gabe, erroa bera aldatzen da *cuskalki* batetik bestera. Batasunerako **-i*-errodunak aukeratu ziren: *dit, diot, dizut, digu...* Mendebaleko *eusi* (*deust, deustar*) eta ekialdeko **eradun* (*daut / deit, dakot / deior*) baztertu egin ziren. Plurala osatzeko, *-zki*-aukeratu zen atzera berriro: *dizkio* (*ez diño / diotza / diozka / deustaz*).
- e. NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailerako 3. pertsona pluralcan *-te* aukeratu zen (*ez -e*): *dute, diote, naute, dezakete...* 2. pertsona pluralcan, berriro, *-e* aukeratu zen (*ez -te*): *duzue, diozue, nauzue, dezakezue, zaitzue...* NOR sailko adizkiak ziren salbuespena: *-te* aukeratu zen horietan: *zartete, zineten, zaitzezen, zaitzekete...*

Azken batean, errenurik zabalenean eta hiztunik gehienek erabiltzen zituzten adizkiei eman zitzairen lehentasuna

eta, hori ezin zenean, Euskal Herriko erdigunekoak eta literaturan tradizio sendoena zutenak hartu ziren kontuan. Euskalkien egiturari begiraruta, zuzena iruditzen zait egindako aukera. Zehatzago esateko: akatsik gabea. Horregetatik, ziurrenera, ez zen zalapartarik sortu: korapilorik zailena bake giroan askatu zen.

Dena dela, erabaki nagusi horiekin batera, zertzelada txiki ugari zegoen, eta horiek ere erabaki egin behar ziren. Honela jokatu zen:

a. Iraganaldirako -en hobetsi zen: *nintzen-ginen, nuengenuen* (ez *nintzan-ginan, nuan-genduan*).

b. -ke + en / ela loturretan -keen / -keela aukeratu zen (*nukcen, nukcela*), baina -ten, -tela (*duten, luketen, luketela*).

c. Gainerako adizkiei -en / -ela lotzean, euren bukaeren arabera jokatu zen: -z (*naizcn, gaitzcen*), -t (*zaidan, dudan, diodan*), -k / -n (*zaiān / zaiñan, duān / duñan*), -a (*den, zen, garen, diren*), eta -a ez besteko bokaletan amaitzen zirenetan -ø (*dion, nadin*). Bereziketa bat egin zen -u bukaceradunekin: zu, gu pertsona markel dagokienean, -ø (*duzun, zaigun*) eta, bestelakoetan, -e (*dugn, gaitugn*).

1977an egin zen beste urrats esanguratsu bat: batasunerako aditz trinkoak aurkeztu ziren (*egon, joan, etorri, jarraitu, etzan, ekarri, eduki...*) (in *Euskera* 22-2 (1977): 785-850). Aditz laguntzailerako erabili ziren irizpideak hartu ziren oraingoan ere oinarritzat. Pluralgileak aukeratzea zen erabaki beharreko auzietako bar eta, aditz ezagunenci dagokienez, honela jokatu zen:

a. *ekarri, eraman* eta *erabili* aditzetan -tza- hobetsi zen: *dakart* → *dakartzat, daramat* → *daramatzat, darabilt* → *darabiltzat*.

b. *jakin*-erako -zki- aukeratu zen: *dakit* → *dakizkit*.

c. *eduki*-ri dagokionez, zabalduen dagoen -z- hautatu zen: *daukat* → *dauzkat*.

d. *esan*-en pluralerako, azkenik, Bizkaiko -z hartu zen: *dior* → *diodaz*. Arrazoibidea, egia esan, bitxia geratzen zen euskara batuaren egituran eta, ziurrenera, nortaiten presiopean eta bakea egin nahian hartu zen erabakia²¹.

3.2. *Bergarrako Biltzarra* (1978)

Euskaltzaindiak hamar urteko epea eman zion bere buruari, Arantzazun aurkeztutako eredu onartzen zen ala ez ikusi eta aurrerantzean nota eta nola joan erabakitzeke. Beragan egin zuen hori neurtzeko Biltzarra eta, gauzak osotasunean hartuta, aldekoa izan zen emaitza. Batasunaren aurkakoak ere baziren, jakina, horietako batzuk *Euskerazaleak* elkartean eta *Karaberez Bazkunan* zihardutenak, baina idazle eta irakasle gazte gehienek erabat onartua zuten euskara batua. Harritzekoa zen, gainera, hain denbora tarte laburrean, hainbesteko arrakasta lortu izatea eredu berririk (Biltzarreko argibideak in *Euskera* 23-2 (1978): 433-878).

²¹ Oraindik orain argitaratu dira Mitxelena idatzitako zenbait gutun, eta hauxe zioen Luis Villasanti egindako batean (in *Urkizu* 2004: 204):

Ez dut uste *dior*-en pluralaren premia gorrian gaudenik eta, nahiz Bizkaiak *diōz* (*diōdaz* edo antzekorik) eta Donostian, inoiz, *diōktor* erabili, klasikoez erabiliak ez direnez gero, nik ez nituzke inolaz ere sartuko. Horrek ez du esan nahi inori holakorik erabiltzea debekarzen diogunik: nahi duenak, erabili bitza. Baina gauza bat da ez debekatzera eta oso bestea agintzea edo, bederen, konsejarzea. Hortan ez nator bat Berraitua eta Kintanarekin: lehen ere gehiagi sartu dituzte inongo testuren lekukotasunik gabe, ez dakit ongi zertarako. Izugarri gisa, beharbada, euskal ikasleen izugarri.

eta egoki ere bai, beste hizkera batzuk darabiltzagunean: dela euskalkia, dela lagunartekoa, dela beste edozein. Azken batean, ahoskeraren gaineko arauak eman zituenean bezala jokatu behar luke Euskaltzaindiak arlo guztietan: hizkera motak eta hizkera mailak bereiziaz, eta arauak horren arabera emanaz.

Esan dezadan, honen harira, euskara “onarekin” berdintzen direla askok euskara batua. Hori dela eta, *erori zait* da “ona”, eta *jausi jat* edo *bota dakir* “txarrak” edo “desegokiak”. Gauzak ez dira inondik inora horrela. Oso bestela da kontua: *erori zait* da euskaldunik gehienek eta Euskal Herri gehienean erabiltzen eta ulertzen dena, eta horrexegatik aukeratu da euskara batuan; ez zuzenagoa edo jatorragoa delako. Aldiz, mendebalean baizik ez da erabiltzen *jausi jat*, eta Nafarroako Sakanan baizik ez da erabiltzen *jausi jat*, eta baztertu dira euskara batutik: eremu murritzekoak direlako, ez okerrak edo baldarrak direlako. Eta, jakina, euskara batuan *erori zait* erabiltzea egokiena den bezala, mendebal barruko jardunean *jausi jat* erabiltzea zuzena eta egokia da, eta baita Sakanan *bota dakir* erabiltzea ere.

Garbi dago arauak zabalitzeko eta betearazteko bidea zehaztea ez dagokiola, berez, Hizkuntza Akademia bati, baina gurean, gauza horietaz arduratzen den besterik ez dagoenez, eta oso iritzi okerrak zabalitzen ari direnez, Euskaltzaindiak berak hartu behar luke erantzukizuna. Eta bada horren premia gorria, irizpide bateratu ezak oso ondorio beltzak ekartzen ari delako gure artera.

Gizartean Euskaltzaindiari egin zaion bigarren kritika dela eta, hau da, Euskaltzaindia benetako arazoei aurre egin beharrean txikikerietan dabilela, uste horrek izan dezake bere egi-

aren zaita. Esate baterako, historian zehar izan diren aita santu guztien izenak euskaraz nola diren zehaztea ez zait iruditzen inolako lehenetasuna. Dena dela, metodologia zuzena da gauza errazak lehenbailehen konpontzea, eta zailak geroko uztea. Gauza errazak konpontzeko erabili den bidea lagungarri gerta daiteke, gainera, zailagoi ekiteko orduan. Baina aitzakiak aitzakia, Euskaltzaindiak arreta handiagoa jarri behar luke hiztunen kezka eta buruhausteetan, eta horiei lehenetasuna eman.

5. Zenbait ondorio

Ezina zirudiena egina ikustea oso da pozgarria, eta horixe da euskara batua: XVI. mendez geroko amets gauzatu ezina. Bide asko ibili da harrezkero, egitasmo ugari saiatu dira eta, atzera-aurrera guztien ondoren, lortu da helburua. Lorpen handia euskara txikiak eskuratu duena, eta horren gainean egin nahi ditut zenbait gogoeta.

5.1. Euskara batuen egitura

Erdialdeko euskalkian oinarritu da, gehienbat, euskara batua, eta zuzena da erabakia. Hizkera estandarra eraikitze-ko oinarriko baldintzak betetzen ditu:

- Hizkuntzazkoa, erdigunean dagoenez, bera delako euskaldun guztiendako ulerterrazen eta ikasterrazenetakoa.
- Soziolinguistikoa, XVIII. mendez gero, euskara giputza izan delako ospetik handienekoa.

Zuzen k. (2005), Euskara batua.
Ezina oinarri gina. Donostia.
Sakan.

c. Demolinguistikoa, erdialdeko euskalkia delako, mendebalekoarekin batera, hiztun kopururik hazienekoa.

d. Sozioekonomikoa, hiri sare zabala dagoelako Gipuzkoan.

e. Literatura tradizioa, XVIII. mendetik hona, euskalki horrekek izan duelako literatura nagusitasuna.

Xehago begiratuko diegu arrazoi horiei.

Begi bistakoak dira hizkuntzazkoak: Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroako mendebaleko hizkerak dira euskaldun guztiendako ulertterazetak. Erdigune horretatik urrundu ahala, ugartitu egiten dira ulertzeko zailtasunak, Bizkaita eta Zuberoara iristen garenean, gehienbat.

Euskara giputzaren ospez luze mintzatu naiz dagoeneko (in Zuazo 1988, 2000, 2003), eta ez naiz gai horretara itzuliko berriro. Gogora dezagun, dena dela, euskara batua egin aurretik ere euskara giputzcan ikusi zutela askok eta askok batasunaren giltza: Juan Antonio Mogelek, Bonaparek, Azkuek, Belustegigoitiak, Campion-Broussain bikoteak, Sebero Altubeck... eta, jakina, giputz jatorriko beste zenbaitrek.

Ospe hori dela eta, euskara giputzcan idatzi duten kanpoko idazleak ere izan dira: Juan Antonio Mogel lehenengo, eta Txomin Agirre, Pierre Lhande edo Jon Mirande geroago. Hego Euskal Herriko misiolari eta bertsolariek, eta berean, euskalki horixe izan dute gogoko.

Dena dela, hiztun kopurua da euskaririk sendoen eta, hain zuzen, euskara batua egin berrikan, euskaldunak zenbatzeko saioa egin zuen Pedro Irizarrek. Euskalkia bereizi zituen, Bonaparteren sailkapena aintzakotzat hartuta, eta hauxe izan zen ondorioa (Irizar 1973: 66-67):

EUSKALKIA	HIZTUNAK	EUSKALDUNEN %
Bizkaitarra	200.480	37,57
Gipuzta	200.050	37,49
Ipar. goi-nafarra	51.000	9,56
Hego. goi-nafarra	440	0,08
Lapurterra	22.970	4,30
Mende. behe-nafarra	22.790	4,27
Eki. behe-nafarra	23.760	4,45
Zuberotarra	11.090	2,07
Zehaztugabeak	915	0,17
<i>Guztira</i>	533.495	100

Taulak erakusten duenez, agerikoa da euskara giputzaren eta bizkaitarraren nagusitasuna. Hortxe dago euskararen indarra, eta hortxe, beraz, euskara batuaren ardatza. Gaur egun zeharo zentzugabea da lapurtarraren gainean eraikitzea hizkuntzaren batasuna. Jakina, Lapurdiko literatura zaharra beti izan beharko da gogoan, eta beti hartu beharko da kontuan Ipar Euskal Herriaren osotasuna, baina, zenbait aukera egiteko orduan, begi bistakoa da zaindu beharreko norabidea.

Nabarmentzekoa da, azkenik, Gipuzkoaren egitura hiritarra. Hiri hazietako hizkera sari geratu da estandarren oinarri; halaxe izan da Pariskoa Frantzian, Lisboa eta Portugalen, Bartzelonako Karalunian edo Londresko Ingalaterran. Bilbo da Euskal Herriko hiri nagusia, baina ez da euskalduna, eta Euskal Herria ez dago horrelako nagusitasunik duen besterik.

Berezia da, ostera, Gipuzkoaren egitura. Ez dago erabateko nagusitasuna daukan hiri bakarrik, baina hainbat hirigune hazi daude herrialdean barrena: Irun-Hondarribia, Errenteria-Lezo-Oiartzun, Donostia-Pasaia, Lasarte-Herraini-Andoain, Tolosa, Beasain-Ordizia, Zumarraga-Urretxu-Legazpi, Azkoitia-Azpeitia, Zarautz-Orio-Getaria. Hirigune horiek hein batean lotuta eta bata bestearekin uztartuta daude, eta Gipuzkoa bere osotasunean dela hiri handi bat esan daiteke.

Baina erdialdeko euskararen onurak aipatu eta erakutsi ondoren, mendebaleko euskaraz mintzatu nahi nuke. Errazegi utzi da alde batera. Egia da berezia eta desberdina dela, eta gainerako hiztunendako urruna eta arrotza, baina hazia da bertako hiztunen kopurua. Herri handi samar zenbaitetan, gainera, euskarak badu indarra: Ondarroa-Markina-Lekoito, Durango eta bere ingurua (Berriz-Zaldibar eta Abadiño-Elorrio), Zornotza, Galdakao, Gernika-Bermeo, Igoerre-Lemoa, Mungia eta bere ingurua, eta administrazioz Gipuzkoa izan arren, hizkuntzaz eremu horretakoa den Debabarrean, hau da, Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza, Oñati, Bergara-Antzuola-Elgeta, Soraluze-Eibar-Elgoibar...

Mendebaleko euskara alde batera uztearen errua ez zaie, dena dela, beti "beste" leporatu behar; bizkaitar zenbaitek ere izan dutelako horretan erantzukizuna. Euren euskalkiko gauzarik bitxiarik eta berezikiak baliatu eta indartu dituzte sarritan, sekula izan gabeko euskara sortzen eta asmatzen jardun zuten XIX eta XX. mendeetan eta, XVIII. mendetik honakoan, Euskal Herriaren eta euskararen osotasunari ezizuki egin, eta euren herrialdean eta euren euskalkian itxi dira behar baino gehiagotan.

Azkenaldi honetan, ostera, gero eta gehiago dira bide zuzenetik dabilzanak, eta euskaldun guztiok jasotzen eta eskertzen ditugu horren onurak. Euskaldun guztion eskutara iritsi dira mendebaleko idazleen izkribuak: Joseba Sariñanandia, Juan Martin Elexpuru, Jon Arretxe, Unai Elorriaga, Julen Gabiria, Kirmen Uribe, Jasone Osoro, Sonia Gonzalez, Unai Iturriaga, Igor Estrankona, Urzi Urrutikotxea... Euskal Herri osoko plazetan entzun dira, eta berean, mendebaleko bertsolarien ahotsak: Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Enbeitarrak, Iratxe Ibarra, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Arkaitz Estiballes, Paia anaiak, Etxahun Lekue... Baita mendebaleko musikarien doinuak ere: Mikel Urdangarín, Ken Zazpi, PLT, Urgabe... Euren hizkeran oinarri hartuta, eta euren hizkera hori euskararen osotasunean txertatuta lortu dute Euskal Herri osora hedatzea eta Euskal Herri osoak onartzea.

Norbere hizkera bizia—ez ametsetako—komplexurik gabe eta naturaltasunez erabiltzea, eta norbere hizkeraren benetako aberastasunak—ez bitxikeriak eta txokokeriak—euskara batuan modu orekatuan sartzea da, nire iritzian, bide zuzenetik ibiltzea. Eta bide horretatik ibilita, asko da mendebaleko hiztunek, euren buruari lehenengo, eta Euskal Herri osoari gero, eman diezaioketen laguntza.

5.2. *Euskara batuaren onurak*

Euskara batuak bide luzea egin du 1964tik hona, eta agerian daude, eta neurtzeko moduan, ekarri dituen onurak. Honako hauek iruditzen zaizkit denetan esanguratsuenak:

a. Gainditu egin dira euskaldunen arteko ezin ulertuak: euskara batua dakitenek ez dute batuk bestearkein jarduteko erdarara nahitaez jo beharrik.

b. Euskara espartu guztietara zabaldu da: irakaskuntzara, administrazioa, hedabideetara, literatura idatzira, Internetara... Ez da, dagoeneko, etxe edo herri barruko ahozko jarduneko mintzaira soila.

c. Euskaldun berrien kopurua ikaragarri handitu da eta, euskara txikiak bizirik iraungo bazuen, ezinbestekoa zuen haztea eta zabalzea.

d. Euskararen mugak desagertu egin dira. Ez da, dagoneko, menderik mende geroz eta txikiago zen hizkuntza, geroz eta muga estuagoak zituena, iraganeko mapak bata bestearkein alderatuta ikus dezakegun bezala. Euskara Euskal Herri osora zabaldu da: Bizkaito Karrantzara, Ebro ibai ondoko eskualde arabar eta nafarretara, Pirinio magalako Zaraitzu eta Erroñkari ibarretara, Baiona-Angelu-Miarritze hiribilgunera... Baina hor ez ezik, Madrilen, Bartzelonan, Parisen, Londresen, Poznanen, Moskun, Tokion, Buenos Airesen, Renon... nonahi daude euskaldunak. Euskara ez da, dagoneko, Euskal Herriko muga estuetan bizi den hizkuntza, mugarik gabea delako *Euskararen Herria*.

e. Hizkuntza eta Herria bere osotasunean ikusten hasi gara. Ez gara, dagoeneko, norbere euskalkira eta norbere herrialdera begira bizi, eta Pirinio mendiak ere ez dira, dagoeneko, iraganezinezko hesi. Dena dela, bada oraindik zer hobetua eta zer aldatua, Ibon Sarasolak (1997) zorrutz eta zehatz erakutsi duen bezala.

f. Benetako *hizkuntza* da euskara. Ez da, dagoeneko, euskaldunek eurek ere ulertzen ez dituzten *dialekto sorta*. Hizkuntzek izan ohi duten prestigioa bereganatzeko urratsa egin da.

5.3. Arrahastaren arrazoiak

Nabarmentzekoa da, azkenik, euskara batua Francoren diktadura militar basatiaren azpian eraikitzen hasi zela. Garai hartako unibertitateetan ez zen euskal filologiarik, ez euskararen zerikusia zuen ezer ikasleko eta jendea prestatzeko aukerarik, eta egoera beltz eta zail hartan euskara batua arrera egin izanak badu bere esangura berezia. Hona hemen zenbait arrazoi:

a. Hilzorian zegoen euskara. Bertan behera utzi edo bizi zen irtenbidea, eta ahalegin guztia egin zen bizitzaren alde. Diktaduraren gogortasunak berak bulztatu zuen jendea horretara.

b. Abian jarritako ekintzak gauzatzeko ezinbestekoa zen euskara batua. Ezinbestekoa ikastolek, gau eskolek, hedabidek, literaturak aurrera egiteko.

c. Batasunaren egitasmoa gauzatzeko goren mailako hizkuntzalaria azaldu zen: Koldo Mitxelena.

d. Mitxelenen ondoan itzal eta eragin handiko lagunak izan ziren, Txillardegi eta Gabriel Aresti bereziki. Baita emandako agindua betetzeko prest zegoen jende multzo zabala ere: idazleak, irakasleak, kazetariak, euskaltzain talde bat—euskaltzain guztien erdia inguru baizik ez, zoritxarrez— eta era guztietako euskaltzale mordoak.

e. Teknikoki zuzen eta egoki egituratu zen euskara ba-
tua. Aurkariek ikusitako akatsak (*h*-a sartzea eta bustidura-
ren zeinua kentzea) oso azalekoak ziren, ortografiari ze-
gozkionak, eta ez ziren, gainera, inolako akats, euskararen
osotasunari begira hartutako erabaki guztiz zuzenak baizik.

GEROA

Zazpigerren ahizpa, txipia, lamiña
Zure bularretarik jin zeitan hizkuntza
Euskaldün izareko behar den bihotza
Züberera dütt horrez arimaren ama.

Gizonak gizontzeko behar dü bi dama
Batak deio bizia, besteak lagüntza
Bietarik beitate frütüen hezkuntza
Emazte nafarra dütt, ene haurren ama.

Güziak desbardinak, denak euskaldünak
Etxahunek erranik, zazpiak bat gira
Etxeki beraz ama, baita sci lagünak.

Tokian zübereraz, kanpoko batüan
Biak behar düttügü, zoin bere leküan
Etsai bakoitxa dügü erdaren sobera.

Pastorala zubereraz
Telcbista batueraz
Bien artean abal bezala, baina gehien bat euskeraz.

Jean-Louis Davant